

UDAZKENA

Errepika: Udazkena¹ hain xarmegarria
(bis) urtarorik maitagarriena.

Bat-banazka, hostoak airean dantzan.
Hori-gorria, besta dugu zuhaitzetan.

Oihanetan, haurrak uros gaztain biltzen
eta urtxintxak³ gora jauzika ibiltzen.

Errepika.

Iratzea² etzaten da mendietan;
haize hegoa, hor dugu maiz bazterretan.

Errepika.

¹ udazkena : larrazkena
² iratzea : garoa
³ urtxintxak : kattagorriak

Errepika.

Udaz-ke-na hain xarmegarria urtarorik maitagarriena Bat-banaz-ka hostoak airean dan-tzan hori gorri-a besta du-gu zuhaitze-tan.

HELBURUAK

| AKTIBITATEAK | ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK | ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK |
|---|--|--|
| IRUDITU, SENDITU, SORTU. Irudiak garatu. Doinuaren zuzentasuna landu. | <ul style="list-style-type: none"> ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez. | <ul style="list-style-type: none"> ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere. |
| MUNDUARI OHARTU. Urtaroaren ezaugarriak definitu. | <ul style="list-style-type: none"> ◆ Animalien eta landareen biziaren ezaubideei ohartu. | <ul style="list-style-type: none"> ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. |
| MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. | <ul style="list-style-type: none"> ◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu. | <ul style="list-style-type: none"> ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete. |
| ELGARREKIN BIZI. | <ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu. | |

USTIAPENA (egin moldea)

- Udazkenaren ezaugarriak landu eta, hurrek kantua gogoz ikasten dute. Urtaro horri doakion hiztegia gogoan atxikitzen dute.
- Koloreak lantzen dituzte eta ondotik eranskinean dagoen marrazkia margotzen dute.

☺ **Marrazkia margo ezazu udazkeneko koloreekin.**

Osatzeko :

- **entzun** *Chants des 4 saisons. Calendrier sonore de la nature.* 09307 KDa. Sittelle.
- **entzun** *Arbolatik hostoa.* Maijane Kanta zan ! KDa. Oskorri.
- **ikus** *Udazkena* kantua. Gure abestiak. 1.2. Heziketa musikal naturalerako haur abestiak.
- **ikus** *Lokartu da uda* olerki laburra. Manex Lanatua « Sapelar ». Kilim Okabeko gauak. Maiatz.
- **ikus** *Hitzak jostailu*, 28. or. J. Ormazabal. Elkar.



